

Barne-bilera zabalak, errepasorako zerrenda:

- Bileraren hasieran hizkuntzak nola erabiliko ditugun mahaigaineratu eta adostuko dugu.
 - Ulermenari lekua egin diogu, alegia, euskaraz hitz egin nahi duenak erabiliko du, beste guztiek ulertzen dioten kasuan edo besteren batek lagunduta.
 - Deialdia, akta eta eskura ematen den materialaren hizkuntza zein den erabaki dugu: hizkuntza bakarrean, hizkuntza bakoitzerako eredu bana, ele bietan...
 - Aurkezpenerako euskarrian hizkuntzak nola erabili hausnartu eta erabaki dugu: ahozko hizkuntzaren kontrakoa, bietan, hainbat hizkuntzatan...
- Infografiak jarri ditugu bilera-geletako mahaietan euskararen erabilera handitzeko jarraibideekin.
- Euskararen ahozko erabileraren jarraipena egiteko, erregistroa jarri dugu bilera-geletako mahaietan (gelan zer bilera izan den, nork eta hizkuntzen erabilera) edo bestelako moduren batean neurtu dugu.
- EUSLE bat izendatuko dugu, elkarrizketak gaztelaniara bideratzen direnean, bileran euskarari eusteko.

IRIZPIDEAK

- Alor honetan parte hartzen duten profesional guztiek argi dituzte erakundearen estrategia eta hizkuntza-irizpideak.
- Hizkuntzen erabileraren jarraipena eta ebaluazioa egiten dugu, eta hobetzeko neurriak ezarri.